

LURRAREN GUTUNA

Haurrentzako adaptazioa

GONBIDAPENA

Lurra gure etxea da.

Garai oso garrantzitsu bat bizi dugu eta Lurra kontserbatu behar dugu.

Munduko herri guztiek familia handi bat osatzen dugu.

BAKEAN BIZI ETA NATURA ERRESPETATZEKO lan liluragarria egin dezagun.

, ... Unibertso izugarri baten barne gaude.

Unibertsoan, gure mundua landare animalia eta pertsona askorekin bizitzaz beterik dago.

Ura, lurra eta airearen menpe gaude eta mundu honetan bizitzeagatik poztasuna sentitzen dugu.

Ura, lurra eta airea alferrik galtzen duten eta animaliei, landareei eta beste pertsona batzuei kalte egiten dieten pertsonak daude. Zoritxarrez, gerrateak daude, gozea jasaten duten, etxerik ezta ikastetxerik ez duten edo sendagile ezta sendagairik gabe gaixotzen diren pertsonak daude.

Zer egin behar dugu?

Munduko pertsona guztiek bizitzeko behar duten guztia eduki dezaten lagunduko dugu.

Guk, neskak eta mutikoak, EGUNERO AHALEGIN TXIKI BAT EGINGO DUGU gauza txarrak onak bihurtzeko, mundu guztia ondo tratatuko dugu eta daukaguna hobeto banatuko dugu.

Bestak laguntzen eta maitatzen baditugu, POSTASUNEZ ETA ZORIONTASUNEZ BIZIKO GARA. Helduen ahalegina ere eskatzen dugu: guraso, irakasle, auzokideak

IZAKI BIZIDUNEN ZAINKETA ETA ERRESPETUA

1. Pertsonak, animaliak eta landareak ezagutu eta errespetatu itzazu.
Izaki biziak direlako.
Beharrezkoak direlako.
Gauza on eta ederrak sortzen dituztelako.
2. Pertsonak, animaliak eta landareak ondo trata itzazu.
Naturaren parte direlako.
Gure babesa behar dutelako.
Bizitzeko baliabideak ematen dizkizutelako.
3. Zure kideei lagundu eta zure adiskidetasuna eskaini iezaiezu.
Behar zaituztelako.
Beraiengandik asko egin dezakezulako.
Partekatu nahi duzulako.
4. Jende askok gauza on eta ederrak gozatu ditzala egin dezakezu.
Bizirik dagoen guztia errespetatzen duzulako.
Alaitasuna nahi duzulako.
Jaioko diren haurrentzako leku ona prestatzen duzulako.
BIZITZAN DENA ELKARLOTURIK DAGO.
5. Landareak, animaliak eta pertsonak nola bizi diren miretsi ezazu.
Inork kalte egin ez diezaien zaindu ezazu.
Babesa eduki dezatela eska ezazu.
Izaki guztientzat ondorengoak eska itzazu: airea, ura, eguzkia eta lurra.
6. Bizi zaren tokia garbi mantendu ezazu.
Lurra garbi mantendu ezazu eta ura aurreztu ezazu.
Zaborra batu ezazu.
Zure gauzak ordenatzen ahalegindu zaitetz.
7. Hiru gauza hauek beti errespetatu itzazu:

- Izaki bizidunen bizitza.
 Pertsonen eskubideak.
 Denon ongizatea.
8. Bizi zaren lekua ezagutu eta balioetsi ezazu, eta ondorengo gauzei buruz dakizuna partekatu ezazu:
 Izaki bizidunak bere ingurumenean.
 Beste herrialde eta herrietako jendea.
 Osasuntsu bizitzeko behar duzuna.

DENEK BEHAR DUTENA EDUKI BEHAR DUTE

9. Jende pobrerik egon ez dadin elkarlana egin ezazu.
 Denek duinki bizitzeko behar dutena eduki behar dute.
 Haur guztiek eskola bat eduki behar dute.
 Behar gehien duen jendea, laguntza gehien jasoko duen jendea izango da.
10. Jendea hobeto bizi dadin lagundu iezaiezu.
 Gehien duten pertsonak, gehien lagunduko dutenak izango dira.
 Behar duzuna bakarrik edukitzea nahi izan behar duzu.
 Daukazuna partekatzen ikasi behar duzu.
11. Mutiko eta neskatilek garrantzi berdina duzue.
 Mutiko eta neskatilak batera ikasi eta hazi behar duzue.
 Mutiko edo neskatila bat gaixorik badago, beharrezkoak diren zainketak jasoko ditu.
 Emakumeek gizonen eskubide berdinak dituzte.
 Familia guztiak babestuak izango dira.
12. Lan egizu edozein mutiko edo neskatilak:
 familia aberats edo pobreako,
 zuria, beltza edo beste kolore batekoa,
 herrialde honetakoa edo beste herrialde batekoa,
 gure hizkuntzakoa edo beste hizkuntza batekoa,
 kristaua, musulmana, beste erlijio batekoa edo erlijiorik ez duena,
 jana, etxea, familia, atsedena, ikastetxea, lagunak, jolasak eta alaitasuna eduki dezala eta
 gaixorik badago, sendagilea eta senadagaiak eduki ditzala.

GERRARI EZ; BAI BAKEARI

13. Ahalegindu zaitetz bizi zaren tokian inor borrokatu ez dadin.
 Zure auzo edo herriko pertsonak nola bizi diren informatu zaitetz.
 Pentsatzen duzuan esan ahal behar duzu eta nahi duzunarekin bildu ahal behar duzu.
 Bakoitzak bere ingurugiroa zaindu behar du.
14. Ikasi, batez ere besteekin elkarbizitzeko laguntzen dizuna.
 Interesez ikasi pertsona hobea izaten lagunduko dizun guztia.
 Komunikabideek, gaur egun munduko pertsonak dituzten arazoak eta zailtasunak
 ulertzen lagunduko dizute.
 Zenbat eta hobeto hezten zaren, bizitzeko hobeto jakingo duzu.
15. Pertsonak, animaliak eta landareak maita eta lagun itzazu.
 Zure etxean.
 Eskolan.
 Auzo edo herrian.
16. Mundu guztiarekin beti bakean bizitzeko ahalegindu zaitetz.
 Denok elkar ulertu eta laguntzeko beharrezkoa da.
 Gizakiek ez dute gerra egingo ezta armarik fabrikatuko.
 Mundu osoan bakea lortu behar da.

LABURPENA:

Gizakiok, bizi garen mundua kontserbatu eta hobetu egin behar dugu; horregatik modu berri batetan bizi behar dugu, ditugun gauza onak erabiliz. Denekin hitz egin behar dugu, dauden kultura eta asmakariez baliatzeko. Beste herrialde batzuetako jendeak, hizkuntzek, ohiturek eta erlijioek ere laguntzen digute; horrela bizimodu eta jendea tratatzeko modu berriak ikas ditzakegu. Egoera zailak gainditzeko ahalegina eta arreta jar dezagun. Batzen bagara, mundua asko hobetu ahal izango dugu, pertsona guztiak baliagarriak garelako eta lagundu dezakelako. Ia gugatik ondorengoa esaten den: “modu berri batetan bizi nahi dute”, “bakean bizitzen ahalegintzen dira”, Lurra kontserbatzen dakite”. Lurraren Gutunak, mundua kontserbatzeko zer egin behar dugun dio: natura errespetatu, giza eskubideak bete, beharrezkoa dena denek eduki dezatela lortzea eta beti bakean bizi. –

Lurraren Gutunak bizi garen mundua kontserbatzera eta hobetzera lagunduko du. Lurraren Gutuna, herri eta pertsona ororen legea izan behar du. Lurraren Gutuna 1992. urtean idatzi zen. Hobekuntza eta gehikuntzak jaso ditu. Munduko herrialde eta estatu guztiegatik onetsia, onartua eta praktikara eramana izan dadila eskatzen dugu.